

2373/2010 FORU AGINDUA, urriaren 14koa; horren bidez, S-2 eskabide-eredua onetsi da, ondasun higieziniei, eskuratu edo eskualdatu aurretik, eman dakiekeen balioari buruzkoa (BAO Urriaren 21ekoa)

86/1990 Foru Dekretua, ekainaren 26koa, hiri-izaerako ondasun higiezinaren katastroko balioa modu objektiboan zehazteko Balorazioko Arau Teknikoak eta Balioen Koadroa onetsi dituen; dekretu horrek katastroko balioaren prozedura teknikoari buruzko araudia jasotzen du.

Aipatutako Foru Dekretua garatzean, abuztuaren 8ko 1933/1994 Foru Aginduaren bidez, hiri-izaerako ondasun higieziniei eman dakiekeen balioaren gaineko aurretiko informazioari buruzko S-2 eskabide-eredua onetsi zen. Eredu hau, aipatutako Foru Aginduaren 1. artikulua xedatutakoaren arabera, hiri-izaerako ondasun higiezinaren geroko eskuratzailerak erabili izan dute orain arte, eskualdaketa Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergapean dagoenean, «kostubidezko ondare eskualdaketak» kontzeptuan.

Gaur egun, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 87. artikulua ezarri du, zerga zehatz bat aipatu gabe eta higiezinaren hiri- edo landa-izaeraren gaineko mugarik gabe, Zerga Administrazioak balioaren berri emango duela, Bizkaiko higiezinaren katastroan sartuta, erosteko edo eskualdatzeko izango diren ondasun higiezinaren zerga-ondorioetarako, zerga bakoitzaren araudian ezarritako baldintza eta ondorioekin.

Horrela, Zergei buruzko Foru Arau Orokor hori garatzean, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko Araudia onetsi duen uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuak 21. artikuluan ezarri da Zerga Administrazioak, interesdunak hala eskatuz gero, ondasun higiezinaren berri emango duela, horiek eskuratu edo eskualdatzerakoan higiezina kargatzen duten zergei dagokienez eta haien zerga-oinarria higiezinaren balioaren arabera zehazten denean.

Ekainaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren 21. artikulua horrek ezarri du ondasun higiezinak eman dakiekeen gutxienezko balioa izan ezean, eskabidea Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren Foru Aginduak onetsitako ereduaren bidez aurkeztuko dela, artikulua berak zehaztutako dokumentazioarekin batera.

Aurreko guztia oinarri hartuta, beharrezkotzat jotzen da S-2 eskabide-eredu berria onestea, ondasun higieziniei, eskuratu edo eskualdatu aurretik, eman dakiekeen balioa eskatzeko.

Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. S-2 ereduaren onspena

Onetsi egin da S-2 eskabide-eredua, ondasun higieziniei, eskuratu edo eskualdatu aurretik, eman dakiekeen balioa eskatzeko; Foru Agindu honen eranskin gisa agertzen da.

2. artikulua. Balorazio-eskabidea

1. Zerga Administrazioak, interesdunak hala eskatuta, ondasun higiezinaren gaineko balioari buruzko informazioa emango du, horiek eskuratu edo eskualdatzerakoan higiezina kargatzen duten zergei dagokienez eta haien zerga-oinarria higiezinaren balioaren arabera zehazten denean.

2. Ondasun higiezinak eman dakiekeen gutxieneko balioa izan ezean, hiri-izaerakoak edo landa-izaerakoak izan, eskabidea Foru Agindu honen bidez onetsitako S-2 ereduaren bidez aurkeztuko da.

3. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. S-2 eredu berriarekin batera, honako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:
 - a) Eskatzailearen NANaren kopia.
 - b) Erosi nahi den ondasun higiezinaren azkeneko deskripzio xehatua jaso duen agiri publikoaren kopia.
 - c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiriaren kopia, egonez gero.
 - d) Baloratu beharreko higiezina orubea izanez gero, lursailaren eraikigarritasuna erakusten duen hirigintza-zedula, azken 15 egunetan bidalia.
 - e) Baloratu beharreko ondasun higiezinaren titulartasunaren eta zenbaki finkoaren edo katastroko erreferentziaren aldaketa formalizatzeko egingo den eskritura publikoaren zirriborroa.
2. Zerga Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatu ahalko dizkio interesdunari, ondasun higiezina baloratzeko. Halaber, egoki irizitako beste entitate edo erakunde batzuei txostenak eskatu ahalko dizkie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Arau hau indarrean jartzean, indarrak gabe geratuko da abuztuaren 8ko 1933/1994 Foru Agindua, kostubidezko ondare eskualdaketetan hiri-izaerako ondasun higiezonei eman dakiekeen balioari buruzko aurretiko informazioaren prozedura arautu duena.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

ERASKINA

S-2 Eredua



Ondasun higiezinak erosi edo
eskualdatu baino lehen, ondasun
horien balio eratzikigarria eskatzea
Solicitud del valor atribuible a los
bienes inmuebles con carácter
previo a su adquisición o transmisión

S-2

Eskatzailea Solicitante	IFZ / NIF		Deiturak eta izena edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social					
	Egoitza fiskala / Domicilio fiscal			Etxe zk. N.º casa	Letra Letra	Solairua - Aldea Piso - Mano	Telefonoa / Teléfono	
	Udalerría / Municipio			Posta kodea / Código postal	Probintzia edo L. Historikoa / Provincia o T. Histórico			
Higiezinaren datuak Datos del inmueble	Erregistrokoak Registrales	Finka zk. / N.º finca	Liburukía / Tomo	Liburua / Libro		Orría / Folio	Erregistroa / Registro	
	Katastrokoak Catastrales	Landa-ondasuna / Rústico <input type="checkbox"/>	Udalerría / Municipio		Poligonoa / Polígono		Partzela / Parcela	
		Hiri-ondasuna / Urbano <input type="checkbox"/>	Udalerría / Municipio		Zk. finkoa / N.º fijo			
		Kalea edo plaza / Calle o plaza			Etxe zk. N.º casa	Letra Letra	Solairua - Aldea Piso - Mano	
Ondasun mota / Tipo de bien					Jarduera / Actividad			
Egungo jabea Propietario actual	IFZ / NIF		Deiturak eta izena edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social				Part. Koef. / Coef. Part. %	
	Egoitza fiskala / Domicilio fiscal			Etxe zk. / N.º casa		Letra Letra	Solairua - Aldea Piso - Mano	
	Udalerría / Municipio			Posta kd. / Cd. postal		Probintzia edo L. Historikoa / Provincia o T. Histórico		

Aurkezlea / Presentador/a

IFZ / NIF	Deiturak eta izena / Apellidos y nombre
-----------	---

Foru Arau Orokorraren 87. artikulua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Kudeaketari buruzko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren 21. artikulua babesean eta deskribatu diren datuak biltzen dituen higiezina erosteko/eskualdatzeko asmoa daukadanez,

Eskatzen dut:

Katastro eta Balorazio Zerbitzuak ondasun higiezin horren balio eratzikigarria jakinaraz diezadala, zerga likidatzeko finka daitekeena, hain zuzen. Horretarako, eskatutako dokumentuak erantsi ditut.

Siendo mi intención adquirir/transmitir el inmueble cuyos datos se describen y al amparo del artículo 87 de la Norma Foral 2/2005, de 5 de noviembre, General Tributaria y el artículo 21 del Decreto Foral 112/2009, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Gestión de los Tributos del THB,

Solicito:

Que por el Servicio de Catastro y Valoración, se me comunique el valor atribuible al bien inmueble señalado que, en su caso, se fijará para la liquidación del impuesto; para lo cual se adjuntan las copias de los documentos exigidos.

Bilbo, 20ekok

Bilbao,dede 20

Sin.:

Fdo.:

<p>Eskaerarekin ezinbestez aurkeztu beharreko agiriak: Documentos imprescindibles que deben aportarse junto con la solicitud:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskatzailearen IFZren aldakia. Copia del NIF del ó de la solicitante. - Ondasun higiezinaren azken azalpen zehatza egiten duen agiri publikoaren aldakia. Copia del documento público en el que figure la última descripción detallada del bien inmueble. - Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiriaren kopia, egonez gero. Copia del último recibo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles si lo hubiere. - Orubeen kasuan, luraren eraikigarritasuna adierazten duen hirigintza agiria, azken 15 egunetan egina. En caso de solares, cédula urbanística que refleje la edificabilidad del terreno, emitida en los últimos 15 días. - Baloratu beharreko ondasun higiezinaren titulartasunaren aldaketa formalizatzeko egingo den eskritura publikoaren zirriborroa eta ondasun horren zenbaki finkoa edo katastroko erreferentzia. Borrador de la escritura pública por la que se formalizará el cambio de titularidad y número fijo o referencia catastral del bien inmueble a valorar. 	<p>Sarrera erregistroa Registro de entrada</p>
---	--